

Ikasturte hasierako guraso bilera orokorra

- HH2 -

Oreeta-Erreterian, 2022ko urriaren 19an

1. AURKEZPENA

| | |
|------|---------------|
| HH2A | Eba Lekuona |
| HH2B | Ainhoa Gracia |
| HH2C | Leire Saldias |

2. hIZAN PROIEKTUA

Badira urte batzuk Orereta Ikastola haur hezkuntzaren inguruan hausnarketa egiten hasi zela eta, horren ondorioz, haur hezkuntzako proiektua berriro egin da Ikastolen Elkarteko markoan oinarrituta. hIZAN HH proiektua pertsonon ongizatea helburu duen proiektua dela esan dezakegu, haurra gaitasunez beteriko pertsona dela oinarri hartuta eta munduaz ikasteko berezko gaitasuna duela sinetsita, lan egiteko moduak eta begiradak aldatzera datorrena.

Ez dugu zalantzarik, ongizateak testuinguru osasungarri baten beharra duela eta sistema hori familiek, Ikastola komunitateak, antolaketa arkitektonikoek, materialek eta batez ere, berdinekiko harremanek baldintzatuko dutela. Aldi berean, ongizate horren zutabe dira hezkuntza prozesuko esku-hartzeak, hala nola, haurren senei sentikortasunez eta egoki erantzutea; bere gaitasunak identifikatu, balioetsi eta erantzutea; eta zailtasunak hautemanda horiek kudeatzen laguntzea.

hIZAN HH proiektuan, haurra da bere ikasketen protagonista, beren gaitasunak garatuko dituen eta bide horretan, nola ez, helduon laguntza jasoko duena. Izan ere, bere gogo, plazer, interes eta beharrezkoetatik abiatuta dauden jarduerak eta ekintza autonomoak dira haurren ikaskuntza eta garapen psikomotor, afektibo, sozial zein kognitiborako oinarri.

Haurrak airea bezain beste behar du jolasa, bizitzen ari den mundua ulertu eta kudeatzen ikasteko. Gure iritziz, jolasaren eta esperimentazioaren bitartez norberaren erritmoak errespetatzea lortzen da, autonomia, talde lana eta harremanak aberasten dira; eta guztiaren gainetik, haurrak bizitzan beharrezkoa izango duen konfiantza garatuko da.

Konfiantza eta segurtasunezko testuinguru batean, bertako helduengana hurbiltzeko zein atxikitzeko segurtasuna, ingurunea arakatzekoa, berdinkideekin harreman aberasgarriak izatekoa eta ikasteko aukera izango dute, bere gaitasunak garatzea ahalbidetuz. Egiteko eta ekiteko motibazioa eta ausardia konfiantzak ematen digula sinetsita, horixe da pedagogiaren oinarrian jarri duguna.

Laburbilduz, hIZAN HH proiektua, hezkuntza gaur egungo jendartearen beharretara egokitzeko eta berau hobetzeko asmotan martxan jarritako proiektua da, zeina egitearen ekinez eraikiko dugun.

3. ETAPAKO KONPETENTZIAK

HIZKUNTZA ETA LITERATURA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA (euskara)

- “Euskaraz komunikatzea, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.”

ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA

- “Objektu eta materialen manipulazioa, aldaketak eragiteko. Errealitatea ebidentzia zientifikotik ulertzea eta bizitzako esparru eta egoera guztietan erabaki arduratsuak hartzea.”

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

- “Nork bere burua, norberaren taldea, ingurua eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea.”

ARTERAKO KONPETENTZIA

- “Kultura eta arte-adierazpen desberdinak ezagutzea eta baloratzea. Artearekin gozatzea eta material ezberdinak ezagutu eta manipulatzeko, irudimenez eta sormenez adierazteko eta komunikatzeko.”

KONPETENTZIA MOTORRA

- “Norberaren nortasuna eraikitzea eta gorputza ezagutzea. Gorputz adierazpena erabiltzea komunikatzeko eta ideiak, emozioak...adierazteko.”

ELKARBIZITZARAKO KONPETENTZIA

- “Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan parte hartzea da, hurbi-leko testuinguruan integratzeko.”

EKIMENERAKO KONPETENTZIA

- “Ekimenez jardutea, ekintzak planifikatu eta kudeatzea.”

NORBERA IZATEN IKASTEKO KONPETENTZIA

- “Bere irudia eta dimentsio pertsonalak eraikitzea.”

4. EUSKARA

Orereta Ikastolako sorrera-helburua euskara eta euskal kulturaren transmisioa eta sustapena dira. Etengabeko jarduerak eta kanpainak aurrera eraman arren, helburua betetzeko zailtasunak agerikoak dira Orereta Ikastolan eta euskararen lurralde osoan. Euskaraz Bizi egitasmoa berrikusi eta ikasleen aitzindaritza suspertuz dinamika

desberdinak jarri genituen indarrean. Irakasle eta langile guztiok konpromiso argia hartzen dugu euskararen erabileraren alde eragiteko, baita dagozkigun arloetan formazioa hobetzen jarraitzeko ere.

Gurasoen kasuan, ikasleen hizkuntz erabileran familiak duen garrantzia bereziki azpimarratu nahi dugu.

Guraso euskaldunek beren artean euskara erabiliz modurik eraginkorrena dute seme-alabengan ahalik eta hizkuntz erabilera eta gaitasun onena ziurtatzeko. Zaindu hizkuntza bizitzaren esparru guztietan.

Guraso erdaldunek ere, euskararekiko interesa erakutsiz eta seme-alaben arteko euskarazko erabilerak oro har sustatuz (euskarazko komunikabideak, adibidez), seme-alaben euskararen erabileran modu positiboan eragin dezakete. Zer esanik ez euskara ikastera animatzen badira.

5. IKASTURTEAREN ANTOLAKETA

5.1 Eskola ordutegia

| | |
|-------------|---------------------------------------|
| Goizez | 09:00/09:30 (sarrera malgua) - 12:15 |
| Arratsaldez | 14:45 /15:00 (sarrera malgua) - 16:30 |

Ikastolara gogoz eta lasai etortzeko, aproposena eguneroko errutinei eta harremanei giro eta denbora egokia eskaintzea da: esnatzeko, gosaltzeko, janzteko eta garbitzeko denbora... Goizeko ordutegi malguak hori guztia ahalbidetzea du helburu.

5.2 Kontaktua

Tutorearekin telefonoz harremanetan jartzeko, aurretik hitzordua adostea komenigarria da. Deitzeko ordu egokiena: 8:45 - 9:00.

Tel.: 943 52 03 97 Luzapena: 269

5.3 Bilerak

Orokorrak: ikasturte hasieran eta bukaeran. Bakarkakoak: maiatzean.

5.4 Psikomotrizitate saioak

| | | |
|------------|------------|----------|
| Astelehena | Asteazkena | Ostirala |
| Leire | Ainhoa | Eba |

5.6. Ekintza osagarriak

| | |
|---|--|
| Jai eta ospakizunak | Irteerak |
| <ul style="list-style-type: none"> - Euskaraldia - Gau Beltza - Euskararen Eguna | <ul style="list-style-type: none"> - Eskolatik antzokira - Eguraldi onarekin herriko parkeetara irteera - Ikasturte amaierako irteera |

| | |
|--|--|
| - San Tomas - Gabon koplak - Inauteriak - MOreretaON - Ikastolaren Eguna | |
|--|--|

6. ORERETA IKASTOLAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

- Itziar Basterrika (HH)
- Naroa Gonzalez (LH)
- Goizargi Iglesias (DBH)

PEDAGOGIA TERAPEUTIKOKO ESPEZIALITATEA DUTEN IRAKASLEAK

- Naroa Gonzalez (HH-LH)
- Ainhoa Otegi (HH-LH)
- Maialen Gurrutxaga (LH)
- Susana Markos (DBH)

HEZIKETA LAGUNTZAILE ESPEZIALISTAK

- Oihana Latasa
- Maite Inziarte
- Aitor Franco

ORIENTAZIO DEPARTAMETUAREN HELBURUAK

Orientazioa etengabeko laguntza prozesua da eta helburu du ikasleei oinarrizko kompetentziak eskuratzen eta bere proiektu pertsonala garatzen laguntzea.


Hau dela-eta, Orereta Ikastolako orientazio departamentuaren eginkizun nagusia hezkuntza orientazioa sustatzea da, curriculum osoan eta ikasle guztiekin. Departamentu honen jarduna bi prozesuetan gauzatzen da, gehien bat:

Tutoretza eta orientazioa

Tutoretza eta orientazioa jarduera multzo bat da, gela barruan zein kanpoan landuko dena, eta ikasleei beren garapenean lagunduko diona, hain zuzen ere: bere burua ezagutzen eta onartzen (garapen pertsonala), sozializazio prozesua hobetzen (garapen soziala), ikasketak aurrera eramaten (ikaskuntza prozesuak) eta etorkizunerako erabakiak hartzen (lanbide orientazioa).

Aniztasunari erantzuna

Ikasleen behar desberdinei erantzun ahal izateko egon daitezkeen neurri eta programa multzoa da, oinarrizko konpetentziak ahalik eta gehien garatzen laguntzeko.



7. GURASO BATZORDEA

ZER DA GURASO BATZORDEA?

Familien ikuspuntua eta iradokizunak helarazteko Ikastolak duen organoa da, seme-alaben hezkuntza prozesu guztian zehar parte hartzeko aukera ematen duena.

Ikastolako partaide eta profesionalekin komunikazio **zuzena** eta **azkarra** izateko (zuzendaritza, zerbitzuak, irakasleak, beste gurasoak...). **EZ** du komunikazio ofiziala ordezkatzen.

NORK OSATZEN DUTE?

HH etapako ikasleen gurasoek.

- Gela bakoitzean gutxienez ordezkarri bat.
- Guraso taldea sortzen bada, HOBE. Bileretara txandaka joatea eta informazioa zabaltzea errazten du eta. Ordezkarri bat baino gehiago dauden geletan elkarlana erraztu egiten da.
- OSO GARRANTZITSUA da gela bakoitzak guraso ordezkarriak izatea.

ZENBATERO IZATEN DIRA BILERAK?

Hilabetean behin, 17:30ean Linoko egoitzan.

- Normalean, hilabeteko 3. astelehenean izaten da.
- Bi helburu:
 - Ikastolatik datorren informazioa jasotzea (Artezkarizatik eta Hezkuntza Batzordetik)

- Gurasoen eskaera eta iradokizunak Ikastolara helaraztea.

GAIAK

- Eguneroko kezken bideratzea
- Ordutegiak eta egutegia adostea
- Ikastolak antolatzen dituen jaialdi eta festa egunetarako familien inplikazioa sustatzea
- Ikastolaren proiektuen jarraipena (pedagogia berria, baso-eskola...) egitea eta proposatzen diren ekintzez hausnartzea.

8. FAMILIA LAGUNA

Herriko ikastetxeetan aurrera eramaten ari garen egitasmo baten berri eman nahi dizuegu. Kulturartekotasuna lantzeko programa honek “Familia Laguna” du izena eta ondorengo helburuak ditu: ikastetxeko familien arteko kulturarteko harremanak sustatzea, ikastetxean izena ematen duten atzerriko familien akonpainamendua; eta euskararen sustapena, bai ikastetxe baita herri mailan ere.

“Familia Laguna” programan, familia euskaldunek beste herrialde edo erkidego batetik datozen familiei borondatezko akonpainamendua ematen diete. “Familia laguna” hauen eginkizun nagusia etorri berri diren familiei ikastetxeko funtzionamenduaren eta herriko baliabideen berri ematea, ikastetxeko guraso gehiago aurkeztea, eta euskal kultura eta euskararekiko sustapena aurrera eramatea da.

Programa hau Aitor Ikastolan jarri zen martxan 2015. urtean, oso emaitza onak lortuz. Gero, Gipuzkoako beste 10 eskola gehitu ziren programara. Bertako familiek eta beste jatorri batzuetako familiek ongi baloratu dute programa. Iritsi berri diren familientzat oso lagungarria izan da bertako familia baten laguntza, bai auzoko edota herriko harremanak irekitzeko, bai eskolaren eta udalerrriaren funtzionamenduaren berri izateko. Seme-alabek eta gurasoek beraiek ere hobetu dute euskararekiko motibazioa eta ikasketa.

Programa aurrera eramateko zuen kolaborazioa beharrezkoa da. “Familia laguna” izateko zuen izena eman dezakezue: beste kultura batzuk ezagutzeko, beste jatorri bateko familietan euskararen sustatzea bultzatzeko, bi kulturen arteko zubi lana egiteko eta beste jatorri bateko familien egokitzapena, bai ikastetxe mailan bai herri mailan, xamurragoa egiteko.

Aipatu, programak ikasturte bateko iraupena izango duela: irailean hasi eta ekainean amaituko da.

Gelako guraso bileran izena emateko aukera izango da. Taulan izena emateak ez du esan nahi parte hartu behar duzuenik, soilik, proiektuko kideak zuekin harremanetan jarriko direla. Honekin batera, **urriaren 25ean, arratsaldeko 17:30ean, Reina Aretoan** (Xenpelar kalea, 3) egingo den bilerara gonbidatzen zaituztegu. Bilkura informatiboa

izango da, akonpainamendu lana egiteko interesa dutenentzat edota programaren inguruan informazio gehiago nahi dutuenentzat.

Informazio gehiago: errenteria.ongietorrieskolara@gmail.com

9. ERANSKINAK

9.1 Urtebetetzeak

Ikasleek beren urtebetetze egunean lagunei banatzeko zerbait ekartzekotan, guztiok elkarrekin jateko moduko zerbait izango da: bizkotxoa, patata-tortila edota antzekoren bat. Horrela, egun horretako hamaiketakoa urtebetetzea ospatzen duenak ekarritakoarekin beteko genuke.

Proposamena hori izateko arrazoi ezberdinak ditugu:

- Ikasleen osasuna: litxarrera ugari jatea ez baita komeni.
- Bereizkeriak baztertzea: gelan guztiok gure urtebetetzea era berean ospatzea bermatzea.
- Jarrera kontsumistak baztertzea: ospakizunari garrantzia emanez eta ez ikasleak ekartzen duenari.
- Hondakin gutxiago sortzea: proposatzen ditugun bideek oso zabor gutxi sortzen dute.

Hau guztia dela eta, hemendik aurrera, zuen seme-alaben urtebetetzeak proposatutako moduan ospatuko ditugulakoan, gozokirik ez ekartzeko eskatuko dizuegu. Guztion onerako dela uste dugu.

9.2 Gaixotasunak

Haurra gaixorik dagoenean, arreta eta baldintza bereziak eskatzen ditu; Ikastolak eskaintzen ez dituen arreta eta baldintzak. Gaixoaldian Ikastolara etortzeak, beste haurrak kutsatzeko arriskuaz gain, bakoitzaren sendatze prozesua atzeratzen du.

Ikastola infekzio-fokua izan ez dadin, haurrak ez dira Ikastolara ekarri behar ondorengo sintomak izanez gero:

- Goizez 38° baino gehiagoko tenperatura izatea.
- Beherakoa (ohiz kanpoko 3 libratze baino gehiago egunean).
- Oka egitea, ezohiko moduan.
- Eritasun eta gaixotasun kutsakorrak (konjuntibitisa, zorriak, elgorria, onddoak, barizela...).
- Eztarriko edo belarriko infekziorik izanez gero, antibiotikoekin tratamenduan daudenean, eta 24 ordu pasa ez direnean tratamenduarekin hasi zirenetik.

Haurrak botika edo substantziaren bati alergia izanez gero, berehala jakinarazi beharko zaio Ikastolari.

Gurasoek botikak Ikastolako ordutegitik kanpo ematen saiatu behar dute. Ikastetxean eman behar izanez gero, ordutegia eta dosia zehazten dituen pediarraren txostena eskatuko da.

Haurrak ohikoa ez den zerbait duenean, familiek ahalik eta lasterren jakinarazi beharko diote Ikastolari.

Era berean, haurren bat Ikastolan gaixotuz gero, berehala jakinaraziko zaie gurasoei edo premiazko kasuetarako adierazitako pertsonari, Ikastolara jasotzera etor daitezten. Familiarekin harremanetan jartzerik ez badago, haurra osasun-zentrora eramango da.

Ikastolan botikarik ez dugu emango. Tratamenduren bat hartu behar izanez gero, ahal baduzue etxeko ordutegira moldatu. Ezinezkoa bada hori, haurraren izena eta tratamenduaren iraupena azaltzen den sendagilearen agiria ekarri beharko duzue.

9.3 Zorriak



Eskola garaia iristearekin batera haurren artean zorri infekzioak berragertu ohi dira, kasurik gehienetan haurrek higiene neurri egokia izan arren. Zorriak bere ostalariaren erabateko dependentzia du, bai elikatzeko, bai bizitzeko. Erraztasun handia dute pertsona batengandik beste batengana pasatzeko, ukipen txikiena aski izan daiteke. Zorri edo bartzek kutsaturiko arropa, orrazi, kapela edo edozein objektu erabiltzea aski izan daiteke kutsatzeko.

Garai batean zorri kutsadura higiene eskaseko biztanleriaren artean sortzen bazen ere, zorriek nahiago dute azal garbian bizi, eta ondorioz, arrunta da higiene neurri egokiak dituztenek ere zorriak izatea.

Ongi garbituriko buruetan nekez agertu ohi dira gorputz-zorriak. Ohikoena burukoak dira, eta bereziki 6-10 urte bitarteko haurretan azaltzen dira.

Nagusiki, gizakiok izan ohi ditugun zorriak bi dira: gorputzekoak eta burukoak. Burukoak gehienetan atzealdean agertzen dira, eta nahiago dituzte luzera ertaineko ileak, ez luzeak ez motzak. Gorputzekoak, berriz, torax edota besapeko ile artean ibiltzen dira, baita arropa ehunen zuntz artean ere.

Zorriak ziztatzean injektatutako txistuak azaleko hipersentiberatasuna sortzen du; ondorioz, handitu egiten da eta azkura eragiten du. Azkura dela eta, hazka egiten dugu eta gehiago handitzen da, eta, beraz, bakterio infekzioak errazten ditu. Negal, zarakar edota zorne-jarioa ere ager daitezke.

Badira zenbait gai zorriak akabatzeko egokiak. Ez dira kosmetikoak, benetako bioazidoak baizik, eta arrazoi horregatik erabilera arauak zorrotz errespetatu behar dira. Tratamendua egin ondoren bartz eta hildako zorriak kontu handiz kendu behar dira, honetarako bereziak diren hortz estudun orraziak erabiliz.

Kutsatuta dagoen inguruko buruak ere miatu behar dira: ikaskideak, senideak... Ikastolari horren berri ematea ezinbestekoa da. Arropak ur berotan garbitu behar dira eta, aukera izanda, lehortu ere bai. Orrazi eta gainerako tresnak ordu-erdiz beratzen eduki behar dira intsektizida disoluziotan.